

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2014/2015 ikasturtea

FAMILIEN PARTE HARTZEA HAUR HEZKUNTZAN

Egilea: Ane Villegas Pérez

Zuzendaria: Marina Ruiz Fernández

Leioan, 2015eko ekainaren 2an

© 2015, Ane Villegas

ZUZENDARIAREN ONIRITZIA

EGILEAREN ONIRITZIA

A U R K I B I D E A

Sarrera.....	4
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: Familien parte hartzea gaur egungo eskoletan.....	5
1.1. Inklusioaren aldeko hezkuntza sistema.....	5
1.2. Familien parte hartzea.....	6
1.3. Parte hartzea emateko estrategiak.....	9
1.4. Eskolan parte hartzeak dituen onurak.....	11
2. Metodologia.....	12
2.1. Testuinguruaren deskribapena.....	13
2.2. Datuen bilketarako erabili diren tresnak.....	14
3. Datuen analisia.....	16
4. Ondorioak.....	20
4.1. Hobekuntza proposamenak.....	22
5. Erreferentzia bibliografikoak.....	23

ERANSKINAK

I. Eranskina. Ikastolako Organigrama Funtzionala.....	27
II. Eranskina. Dokumentuen analisiak/ Erregistro fitxak.....	28
III. Eranskina. Zuzendari Pedagogikoari egindako elkarrizketa.....	30
IV. Eranskina. Irakasleari egindako elkarrizketa.....	34
V. Eranskina. Gurasoei pasatutako inkestak.....	36

FAMILIEN PARTE HARTZEA HAUR HEZKUNTZAN

Ane Villegas Pérez

UPV/EHU

Gradu Amaierako Lan honek eskola inklusibo batean familiek duten parte hartzea aztertzea du helburu, Haur Hezkuntzako etapara mugatuz. Horretarako Bilboko Ikastola zehatz batean ikerketa bat egitea erabaki da. Azterketaren ardatza zentro horretan familiek daukaten parte hartze maila eta aukerak zelakoak diren hurbiletik ezagutzea eta ulertzea izan da. Ikerketan erabilitako metodologia kualitatiboa izan da, dokumentuen analisiak, elkarrizketa zuzenak eta inkestak aurrera eramanez. Teknika horien bitartez lortutako informazioa aztertu ostean, marko teorikoarekin alderatu egin da, ikerketaren ondorioak ateratzeko. Amaieran, ondorioak kontuan izanik hobekuntza proposamen bat aurkeztu da.

Familia, parte hartzea, eskola inklusiboa, parte hartze maila, aukerak

Este Trabajo Fin de Grado tiene como finalidad analizar la participación que tienen las familias en una escuela inclusiva, centrándonos en la etapa de Educación Infantil. Para ello, se ha decidido llevar a cabo un caso de investigación en una Ikastola concreta de Bilbao. El eje de este estudio se centra en analizar el nivel de participación y las posibilidades que tienen las familias en el centro, para así poder conocer y entender desde más cerca dicha implicación. La metodología empleada en la investigación ha sido cualitativa, llevando así a cabo análisis de documentos, conversaciones directas y encuestas. Después de haber analizado la información obtenida, a través de estas técnicas, se ha comparado con el marco teórico, para de esa manera poder extraer las conclusiones de la investigación. Finalmente, teniendo en cuenta dichas conclusiones se ha presentado una propuesta de mejora.

Familia, participación, escuela inclusiva, nivel de participación, posibilidades

The main issue of this End-of-Degree Essay is to carry out an analysis of the participation of families in an inclusive school, focusing on Infant School. To achieve this aim, a research has been done in an Ikastola in Bilbao. The focus of this study is to analyze the level of participation and the chances the families have at school to get it, in order to know and understand more closely that involves. A qualitative methodology has been used through this study carrying out analyzed documents, interviews and surveys. After analyzing the information gathered through these techniques, it has been compared with the theoretical part to draw the conclusions of the investigation. Finally, having the conclusions into account, a proposal of improvement has been developed.

Family, participation, inclusive school, level of participation, chances

Sarrera

XXI. mendean ezagutzen den hezkuntza sistema hau, gizartearen aldaketekin batera eraldatuz joan da; momentuko beharrei erantzun egoki bat emateko nahiarekin. Gauzak horrela, gaur egun ezagutzen den hezkuntza inklusioa, hezkuntza korrante demokratikoen hausnarketen eta ekarpenen fruitua dela esan daiteke. Hortaz, eskola, pertsona gutxientzako erakunde itxi bat izatetik, komunitate osoaren formakuntzarako irekita dagoen entitate bat izatera igaro da.

Ikuspegi inklusiboak, pertsonen arteko diferentzia indibidualak aintzat hartuta eta aintzasunak dakarren aberastasuna indartzeko asmoz, pertsona orori kalitatezko heziketa emateko erronkari aurre egiten dio. Horretarako, eskola honen eraikuntzan, komunitateko sektore guztien elkarlana eta lan bateratua funtsezkoa da. Partaideen artean, familiek eskolan duten praktketan oinarrituko da ikerketa, guraso-irakasle harremana ezinbestekoa delako eskola arrakasta ziurtatzeko.

Era horretan, momentuko praktikaldi garaia aprobetxatuz, Bilboko Ikastola bateko errealitatea ikertuko da; familiek zentroan daukaten esku hartze maila eta aukerak zeintzuk diren hurbiletik ezagutzeko. Horretarako, prozesua bideratuko duten bi helburu zehaztu dira: gaur egun eskoletan ematen diren gurasoen praktikak ezagutzea eta eskola zehatz bateko gurasoen parte hartzea aztertzea, hobetzeko proposamenak emanaz.

Hasteko, gaia kokatzeko, ikuspegi teoriko batetik familien inplikazioaren inguruan zer esaten den jorratu da; momentuko hezkuntza sistemak bultzatzen dituen balore eta ezaugarrietatik abiatuz. Ostean, parte hartzearen esanahia argitu izan da, eman ahal diren mailak ere aurkeztuz. Amaieran, inplikazioa garatzeko estrategiak eta honek sortzen dituen onurak bilatu dira, beti hobekuntzarako bidea zabalduz.

Hurrengo atalean, erabilitako metodologiaren deskribapena egin da. Kasu azterketa izanik, hein handi batean, teknika kualitatiboak erabili dira: dokumentuen analisiak, elkarriketa zuzenak eta azkenik, lanari eraginkortasun handiagoa emateko inkestak.

Amaitzeko, teknika horien bitartez eskuratutako informazioa bildu, aztertu eta bateratu egin da, prozesu osoaren ondorioak atera ahal izateko. Horrela, horiek aintzat hartuz eta ikastolari erantzun egoki bat emateko nahiarekin, ikasle-irakasle-guraso harremana sendotuko duen hobekuntza proposamen bat azaldu da.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: Familien parte hartzea gaur egungo eskoletan

1.1. Inklusioaren aldeko hezkuntza sistema

Gizarteak aldaketa bortitzak jaso izan ditu azken urteotan (Cabrera, Funes eta Brullet, 2004; Iturbe, 2012), ondorioz, hezkuntza sistemak baita eskolak ere aldaketa horiek pairatu izan ditu (Comellas, 2009). Pertsona gutxientzako eskolatzea izatetik, hutsune handiz osatutakoa alegia, gizartea guztiontzako hezkuntza irekia izatera igaro da; gaur egun hezkuntza inklusio izenaz ezagutzen dena (Batanero, 2005).

Inklusioan oinarritutako sistemak, ikasle guztiek hezkuntza jasotzeko eskubidea izatea dakar. Bertan, aukera-berdintasunean oinarritutako guztiontzako kalitatezko heziketa bat eskaini eta ikasle guztien onarpena bermatu egiten da, bakoitzaren desberdintasunak eta berezitasunak aintzat hartuz eta baloratuz. Aniztasun hau normalizat hartzen da, desberdinak izatea guztiz normala eta aberatsa baita (Jiménez, 2010; Eusko Jaurlaritza, 2012). Parrilla-k (2003: 98) aipatzen duen bezala “Aniztasunaz hitz egiteak berdintasunez hitz egitera garamatza. Aniztasuna gizakiari loturik dagoen berdintasunaren adierazpen jakin bat baino ez da”¹.

Gauzak horrela, aniztasunean garatzen doan eskola honen helburua pertsona guztien errekonozimendu eskubidea baita hezkuntza komunitateko parte direnaren errekonozimendua ere lortzea da; edozein dela haien ingurugiro soziala, kulturala, jatorria, etnia, sexua edota egoera fisiko, intelektual edota sensoriala ere (Jimenez, 2010). Horrela, ikasle guztiek hezkuntzan sartzeko eta jarraitzeko aukera bermatuz (Eusko Jaurlaritza, 2012), haien garapen akademikorako eta pertsonalerako beharrezkoak dituzten hezkuntza aukerak eta laguntzak (bai curricularrak, pertsonalak edota materialezkoak) eskaini behar zaizkie (Jiménez, 2010).

Eskola hau, ardua eta erantzukizun batzuk dituen komunitate bezala ulertu behar da, non profesionalak eta bestelako pertsonen artean, ikasleek, gurasoek, komunitateko bestelako erakundeek... era zuzen edo zeharkako batean gizarteko pertsona gazteenak hezten dituzten. Hortaz, eskola inklusibo bat lortzeko testuinguru honetan, ezinbestekoa izango da hezkuntza prozesuan inplikaturik dauden sektore eta agente guztien parte

¹ Parrilla (2003: 98) “Hablar de diversidad nos remite a hablar de igualdad. La diversidad no es más que una determinada manifestación de la igualdad inherente al género humano”.

hartze aktiboa eta elkarlana bermatzea (Eusko Jaurlaritza, 2012; Garrido, Burguera eta Pérez, 2013).

Modu horretan, egoera honetatik abiatuz, inklusioa elkarbanatzen den prozesu bat bezala ulertzen da; hezkuntza komunitateko kide guztiei harrera ematen zaielako. Hots, “ez du irakaslearengan pisu guztia jartzea soilik esan nahi. Sistema inklusibo batek irakasleari euskarri bat eskaini behar dio” (INICO, 2009: 4)². Horregatik familiek egiten duten ekarpena eta lana ezinbestekoa da, haien seme-alaben hezitzaile nagusienak direlako (García eta Sánchez, 2006; Eusko Jaurlaritza, 2012; Garrido, Burguera eta Pérez, 2013).

EAEko Haur Hezkuntzako Curriculumean agertzen den bezala, 12/2009 Dekretuan zehaztuta urtarrilaren 30ean, Haur Hezkuntza familiekin lankidetzan aritu behar da, haurren garapen osoa sustatzeko. Era horretan, egitura demokratikoez eta parte hartzeko bidez baliatuz, gurasoekin lankidetzan jarduteari esker umeen garapen fisiko, afektibo, sozial eta intelektuala garatzen lagundu ahal diegu. Azken batean, familia eta eskolaren arteko harremana oinarri funtsezkoena da kalitatezko Haur Hezkuntza bat lortzeko.

Laburbilduz, Jiménez-ek (2010: 9) aitortzen duen bezala “inklusioa bizitzeko era bat da, “batera bizitzeko””. Horregatik, eskola inklusiboa, hezkuntzako agente guztiek eraikitzen joateko erantzukizuna daukate (Eusko Jaurlaritza, 2012), guztien esku hartze eta erabakiei esker garatzen eta osatzen doalako (Jiménez, 2010). Honek, hezkuntza alorrean diharduten kideen arteko harremana eta komunikazio bide berriak ezartzea eragiten duenez, gurasoen eragina eta inplikazioari erreparatzea ezinbestekoa izango da (Parrilla, 2003).

1.2. Familien parte hartzea

Parte hartzearen ideia gaur egun ulertzen dugun bezala, nahiko berria dela esan beharra dago. Hala ere, hezkuntza esparruaren historian zehar, era batean edo bestean presente egon den faktore bat izan da; garai bakoitzaren pentsaerei moldatua alegia. Beraz, momentuko eskoletako pedagogiaren arabera edota eskola motaren arabera aldaketak jaso izan dira; inplikazio nahiko urria izatetik, askoz ere aktiboagoa izatera igaroz (Kñallinsky, 1999).

² “La inclusión no solo significa poner toda la carga sobre el maestro de aula. Un sistema inclusivo proporciona apoyo a los maestros” (INICO, 2009: 4).

Kontzeptu honek zerbaiten partaide izatea esan nahi du, hau da, bertan hartzen diren erabakietan eragina sortzeko aukera izatea hain zuzen. Ondorioz, eginbehar horrekiko erantzukizun maila bat izatera behartzen du, proposamenetan, erabakietan eta eskolan aurrera eramaten diren ekintza desberdinetan modu aktiboan esku hartu behar delako (Sánchez, 2002; García eta Sánchez, 2006).

Era horretan, familien parte hartzea hezkuntza prozesuan honako honetan datza: eskolako gestio, funtzionamendu, antolaketa baita curriculumaz ezartzean ere esku hartzea, zuzendarien gehiegizko protagonismoa saihesteko (Sánchez, 2002 eta Iturbe, 2012). Izan ere gurasoak, haien seme-alaben garapen integrala ziurtatzen duten lehenengo eragileak direnez, haien umeen hezkuntzan eragina duen edozertan jarduteko eskubidea eta betebeharra daukate (García eta Sánchez, 2006).

Hortaz, hezkuntza sistemarako kalitatezko faktore bat da, baita oinarritzko instrumentu bat hiritar autonomo, aske eta arduratsuak formatu ahal izateko ere (Sánchez, 2002; Montañés, 2007). Sánchez-ek (2002) gogora ekartzen duen bezala, parte hartzen ikasteko zerbaitetan parte hartu behar da, ez da berezko zerbait. Gauzak horrela, eskola lankidetzan garatzen den prozesu bat izan behar da, non hezkuntza komunitatea osoaren artean ohiko helburuak elkarbanatu behar diren. Horrela, guztiak erabakiak hartzeko eta sortzen diren ekintzetan inplikatu ahal izango dira (García eta Sánchez, 2006).

Hori dela eta, esan dena kontuan izanik, INCLUD-ED Consortium proiektuak (2011) bost parte hartze mota bereizten ditu, ikaskuntzan eta eskola errendimenduan duten eragina ere azalduz. Hauek, esku hartzen duten mailaren eta esparruaren arabera sailkatzen dira, eta beheko taulan agertzen diren bost hauek dira:

Taula 1. Komunitatearen parte hartze motak

1. INFORMATZAILEA	Familiak, eskolako ekintzen, bertako funtzionamenduaren eta hartu izan diren erabakien inguruko informazioa eskuratzen dute.
	Familiak ez dute eskolako erabakietan parte hartzen.
	Gurasoen bilerak, hartutako erabakien inguruan familiei berri emateko erabiltzen dira.

2. AHOLKU-EMAILEA	Gurasoek erabakiak hartzeko botere oso mugatua daukate.
	Parte hartzea gurasoei aholkua eskatzen oinarritzen da.
	Parte hartzea eskolako gobernu organoen bidez bideratu egiten da.
3. ERABAKITZAILEA	Komunitateko kideek erabakiak hartzeko prozesuetan esku hartzen dute, erabakitze organoetan inplikazio esanguratsu bat izanik.
4. EBALUATZAILEA	Familiak eta komunitateko bestelako kideek ikasleen ikaskuntza prozesuan esku hartzen dute, hezkuntza garapena ebaluatzen lagunduz.
	Familiak eta komunitateko bestelako kideek eskolako ebaluazio orokorrean parte hartzen dute.
5. HEZITZAILEA	Familiak eta komunitateko bestelako kideek ikasleen ikaskuntza ekintzetan parte hartzen dute, bai eskola ordutegian baita eskolaz kanpoko ekintzetan ere.
	Familiak eta komunitateko bestelako kideek haien beharrei erantzuna ematen dieten hezte programetan esku hartzen dute.

Iturria: INCLUD-ED Consortium (2011: 84), euskaratua.

Proiektu honetan agertzen diren ikerketen arabera, eskola arrakastan gehien laguntzen dutenak azkeneko hirurak izango lirateke; erabakitzailea, ebaluatzailea eta hezitzailea. Horietan familien inplikazioa maila handiago batean ematen da, hezkuntza erabakietan ere eragina eta jarduteko aukera dutelako. Era horretan, inklusio soziala, hezkuntzazkoa eta ikasleen eskola arrakasta era onuragarriago batean bermatu egiten da (INCLUD-ED Consortium, 2011).

Hala ere, gaur egungo egoerari dagokionez, nahiz eta gai honen inguruan aurrerapen ugari egin, Sánchez (2002) eta Egido-ren (2014) esanetan gurasoen praktikak eskolan oraindik oso eskasak eta pasiboak dira; are gehiago etapa nagusienetan. Harremanek asimetrikoak izaten jarraitzen dute, bai eskura dituzten baliabideei begira baita botereari

begira ere; mantentzen diren oztopoak hori garatzea ekiditen duelako. Beraz, idazle hauen ustez, hezkuntza eta ikaskuntza baldintza egokiak garatzeko lankidetzaren sustatuko duten parte hartze eredu berriak izatea halaberrezkoak direnez, Europako herrialde gehienak oztopo horiek gainditzeko lanean daude. Eskola arrakasta lortzeko, kultura parte hartzailea izatea giltzarri oso garrantzitsua dela badakitelako.

1.3. Parte hartzea emateko estrategiak

Guztien esku hartze bideak sustatzeko, eskolak normalean erabiltzen dituen botere harremanak aldatzea ezinbestekoa egiten da. Hots, egitura irekiagoak, parte hartzaileagoak eta berdintasunezkoak bermatu behar ditu; non espazio egokiak eskainiz, gurasoek hitz egiteko eta haien kezkek azaleratzeko aukera izango duten (Flecha, Padrós eta Puigdemívol, 2003; Ortega, 2009). Modu horretan, ikaskuntza ulertzen den modu berri horretan jarduteko, gurasoei informazio eta baliabideak eskaini behar zaizkie (Ortega, 2009; Arostegui, Darretxe eta Beloki, 2013).

Hau horrela izanik, Montañés (2007) eta Iturbe-ren ustez (2012) gurasoek eskolan murgiltzeko aukera anitzak dituzte. Eskola bizitzan eta kudeaketan era indibidual batean edota talde bezala Tutoretzen bitartez, edota Eskola Kontseiluaren bitartez inplikatu ahal dira.

Tutoretzak, lehenengo maila izango lirateke, oinarrikoena. Montañés-en esanetan (2007), senitartekoen eta ikastetxearen harremanetarako espaziorik naturalena eta ohikoena da, espazio honetan ikasleen jarraipena, premiak, informazioa, kezkek eta proposamenak partekatzen dira. Hori dela eta, helbururik nagusia gurasoak ondo informatuta egotea da, eskolaren eta haien seme-alaben inguruko edozertaz interesa adieraziz. Guzti hau, bai elkarriketa indibidualak edota talde bilerak eginez aurrera eramán daiteke.

Eskola Kontseilua eskolako gobernu organo bat da, kudeaketarako eta bertan inplikatzen organo gorena hain zuzen ere. Kontseiluan garapen maila altua eta etekin handiena lortzeko hezkuntza komunitateko sektore guztien bateratzea beharrezkoa da. Era horretan, irakasleak, gurasoak, ikasleak eta zerbitzuetako eta administrazio langileak bertan elkartu egiten dira. Haien egitekoa eskola erakundearen erantzukizun nagusia hartzea denez, bertan aritzeko eta erabakiak hartzeko eskubide osoa daukate (Kñallinsky, 1999; Sánchez, 2002; Montañés, 2007).

Estrategia hauetaz gain, Flecha eta Larena-k (2008), Ortega-k (2009) eta Iturbe-k (2012) Guraso Eskolen garrantzia ere aipatzen dute. Eskola hauek gurasoen elkartzeko puntu indartsuak dira, non etapa berdinean dauden ikasleen gurasoek, esperientziak elkartrukatu, ekintza puntualak edota tailerrak proposatu eta talde hausnarketak egiten dituzten. Bertan, seme-alaben hezkuntzarekin lotura zuzena duten bi espazio nabarmentzen dira: informazio trukea eta formakuntza saioak. Azkeneko hauek momentuko beharren arabera antolatzen dituzte, eta oso aberatsak dira bai guraso bai ikasleentzako.

Edonola ere, esku hartze hauek gela barneko ekintzetara lekualdatzen badira, umeengan emaitza onuragarriagoak emango lirateke. Azken batean aipatu izan diren estrategia horiek eskolako mekanismo formaletara baino ez direlako mugatzen (Mariñas eta Rodríguez, 1999). Flecha eta Larena-ren (2008), de la Guardia eta Santana-ren (2010) eta Iturbe-ren (2012) ustez honen adibide, talde elkarreragileak, solasaldi dialogikoak eta parte hartze tailerrak izan daitezke.

-Taldea elkarreragileak: Gelan talde desberdinak osatzeari deitzen zaio. Hauetan, era zuzen batean heldu bat baino gehiago inplikatzeko da, gurasoak, eskolako langileak... Gauzak horrela, talde hauen osaketa homogeneotasunetik, mailen arabeko taldekatzeengatik eta ikasle batzuk klasetik ateratzeagatik aldentzen dira guztiz. Ondorioz, gelako espazioa berrantolatzea daraman ekintza bat da. Bertako kide guztiek, berdintasunezko harreman batean, elkartasuna eta ikaskuntza prozesua indartzen dute.

-Solasaldi dialogikoak: Eredu desberdinetan burutu daitezkeen ekintza kultural eta hezigarriak dira. Hauen helburu nagusia, literatura klasiko unibertsaleko autoreak bai adin desberdinetako pertsoneri baita kultura eta ikaskuntza maila desberdina duten pertsoneri ere hurbiltzea da. Hauen oinarria, talde hausnarketa egitea eta iritziak elkarbanatzea izango da. Horrela, partaideek irakurketaren ulermenarekin eta ahozko adierazpenarekin loturiko gaitasunak lortzeaz aparte, bestelako trebetasun batzuk ere lortuko dituzte. Ekintza hauetan edonork parte hartu dezake, edozein dela bere jakintza akademikoa, bakoitzak dituen ezagutzak eta sentipenak ekartzen baititu taldera.

-Parte hartze tailerrak: Hauen bitartez gurasoei aukera ematen zaie haien seme-alaben gelan sartzeko eta ikasle eta irakasleekin harreman zuzena izateko. Tailer

hautako ezaugarri nagusienak, esku hartze maila altua eta eskolako talde guztien arteko erantzukizuna eta koordinazioa dira. Izan ere, guztien artean, ume guztientzako kalitatezko ikaskuntza bat lortzeko lanean ari dira. Inplikazio honek, norbanakoaren formakuntza errazteaz ez ezik, ikasleen prestakuntza ere indartzen du. Antolatu ahal diren tailerren artean hauek bereiz daitezke: ekintza ludikoak, eskolaz kanpoko ekintzak, era guztietako tailerrak, irteerak...

Beraz, praktika guzti hauek antolatzea eta aurrera eramatea funtsezkoa izango dira; eskola umeen hezkuntza eta gaitasunak hobetzen dituen espazio berezi batean bilakatzen delako. Eta ez hori bakarrik, familiek haien artean eta profesionalekin ere dituzten kezka elkarbanatu eta konpondu, eta garrantzi gutxien ez duena, haien formakuntza indartu dezakete (Flecha, Padrás eta Puigdemívol, 2003; Ortega, 2009; Arostegui, Darretxe eta Beloki, 2013).

1.4. Eskolan parte hartzeak dituen onurak

Aurretik aipatu diren estrategia guzti horiek agerian uzten dute familien inplikazioa eskolan, eskubide eta betebeharrak bat izateaz gain, abantaila ugari ekartzen dituela; bai eskolan baita ikasle eta gurasoengan ere (Jiménez, 2010; Arostegui, Darretxe eta Beloki, 2013).

Ikasleen aldetik izugarritzko eragin positiboa dauka. Alde batetik, ikasleek haien gurasoen eskola praktikak eta interesa ikusten dutenean, haien ikaskuntza garrantzitsua dela eta benetan baloratzen dutela sentitzen dute. Honi esker, haien motibazio eta segurtasun maila gora egiteaz ez ezik (Flecha, 2006; Ortega, 2009; Arostegui, Darretxe eta Beloki, 2013), eskola errendimenduan ere onurak jasotzen dituzte. Hauek bai eremu kognitiboetan (irakurketa, idazketa eta kalkulua) baita kognitiboak ez diren eremuetan ere (eskolara erregulartasunez etortzea, eskolako ekintzetan motibatuta egotea...) nabariak dira (Mariñas eta Rodríguez, 1999; de la Guardia eta Santana, 2010).

Bestetik, ikasleek familiaren eta komunitatearen ohitura eta kulturatik ikasten dutela jakinik, funtsezkoa izango da irakaslea hori kontuan izatea. Era horretan, kalitatezko esku hartze eta ikaskuntza bat eman ahalko dielako ikasleei; eskusiozko ikasketetatik aldentuz. Beraz, inplikazio honek eskolako kulturaren eta familiako kulturaren artean ezinbestekoa den zubi bat sortzeko aukera ematen du; eskola porrota eskola arrakasta bilakatuz (Mariñas eta Rodríguez, 1999; de la Guardia eta Santana, 2010).

Irakasleari dagokionez, hauek gurasoen lankidetzaren beharrezkoa daukate umeengan emaitza eraginkorrak lortzeko. Gurasoek irakaslearen lana edota jarduna begi onez ikusten ez badute edota elkarbanatzen ez badute, umeak horretaz ohartuko dira. Ondorioz, gurasoek eskolarekiko duten jarrera ezkorra, umeengan ere eragina izango du, haien jarreraren ere islatuta ikusiz (Mariñas eta Rodríguez, 1999). Bestetik, esku hartze hau oso onuragarria da, eskolara baliabide eta laguntza gehiago eramatea suposatzen duelako; irakasleari bere zereginetan lagunduz eta ume guztiak gela berdinean mantentzen lagunduz ere (Flecha, 2006).

Gurasoengan aldiz, gero eta prestakuntza handiagoa izatea eragiten du; haien maila pedagogikoa eta kulturala ere indartu egiten delako (Kñallinsky, 1999). Gainera, haien parte hartzearen eta elkarlanaren garrantzia ulertuko dutenez, haien umeen etorkizun akademikoaren inguruan dituzten itxaropenak ere handiagoak izango dira. Modu horretan, eskolarekiko izango dituzten jarrerak eta harremanak askoz ere positiboagoak eta baikorragoak izango dira (Ortega, 2009 eta Junta de Participación de los Consejos Escolares Autonómicos, 2014).

Hori horrela izanda, ikaslearengan ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak errendimendu altu batekin garatu nahi badira, ezinbestekoa izango da irakasle eta familiek hezkuntzaren inguruko irizpide elkarbanatuak izatea (Sánchez, 2006; Arostegui, Darretxe eta Beloki, 2013). Azken batean, parte hartzea kalitatezko faktore bat da, non errendimendu akademikoa hobetzeaz gain, eskola giroa ere hobetzen laguntzen duen; jarritako helburuak lortzera ahalbidetuz (Sánchez, 2002 eta Junta de Participación de los Consejos Escolares Autonómicos, 2014).

2. Metodologia

Behin gaia eta GAL motaren aukeraketa eginda izan, kasu honetan ikerketa, lan honen oinarria izango diren bi helburu zehaztu izan dira: *gaur egun eskoletan ematen diren gurasoen praktikak ezagutzea eta eskola zehatz bateko gurasoen parte hartzea aztertzea, hobetzeko proposamenak emanez.*

Hau aurrera eramateko, hasteko lanaren eskema orokorra egin da, nahitaez agertu behar diren punturik garrantzitsuenak adieraziz. Garatutako lehenengo puntua marko teorikoa izan da, hau gaia eta helburuak presente izanik osatu izan da. Metodologia atal honetan ordea, bi helburu horiek lortzeko nahian eta momentuko praktikaldi garaia aprobetxatuz,

Bilboko Ikastola batean egin den ikerketari buruz hitz egin da. Bertan, familiek parte hartzeko zelako aukerak dauzkaten eta ondorioz nola inplikatzeko diren aztertu da; posible izan den heinean egoera horri hobekuntza proposamen bat eskainiz.

Erabilitako ikerketa mota deskriptiboa izan da, ikerketan eskuratutako datuak ulertzea eta interpretatzea beharrezkoa delako. Mesonero de Miguel-ek (2005: 15) aipatzen duen bezala, “Ikerketa deskribatzailea modu esanguratsu batean errepresentatzea da”. Aukeratutako metodoa kualitatiboa izan da, helburua pertsonen dituzten jokabideen arazoak ulertzea delako. Honela definitzen du Mesonero de Miguel-ek (2005: 53) ikerketa kualitatiboa: “Ikerketa kualitatiboa datuak lortzeko estrukturatutako metodo bat da, lagin txikiekin egiten du lan eta jomugatzat pertsonen barne-izaerari buruzko informazioa lortzea dauka, hots, motibazioa, iritziak, interesak...”.

Ikerketa eremua mugatu nahian, analisia Haur Hezkuntzako bigarren zikloko 3 urteko gelan aurrera eramane da. Prozesu osoaren iraupena gutxi gorabehera bi hilabete ingurukoa izan da, martxoan hasi eta apirilaren bukaeran amaitu. Ondoren, lana aurrera eramane den zentroaren eta informazioa bereganatzeko erabili diren tresnen datuak emango dira.

2.1. Testuinguruaren deskribapena³

Proiektu honen hurbilketa, Ikastola batean oinarritu da. Zentro hau aukeratu izan da bertako ikasle ohia eta aurtengo Practicum IIIa hor burutzeagatik. Gauzak horrela, testuingurua eta ikastolako profesional asko ezagututa, ikerketa aurrera eramateko informazio nahikoa jaso izan da.

Ikastola Bilboko San Adrian auzoan kokatuta dagoen D ereduko gurasoen hezkuntza kooperatiba bat da, Ikastolen Elkartearen barruan dagoena alegia. Jaio eta unibertsitatara sartu aurreko kurtso guztiak ditu. Orohar kurtso bakoitzeko bi lerroko ikastola da. Beraz, tamaina aldetik nahiko handia dela esan dezakegu; 569 familia, 839 ikasle eta 75 profesional dituelarik.

³ Ondorengo informazioa Ikastolako web orrialdetik atera izan da, nor gara eta egitura ataletatik: <http://www.urretxindorra.eus/NOR> eta <http://www.urretxindorra.eus/EGITURA>.

Aipatu den bezala zentroa kooperatiba bat da, hots, ikastola gurasoena da. Horregatik, hasieratik gurasoen inplikazioa zentroko estamentu⁴ guztietan baita arlo guztietan ere islatuta egon behar da; gurasoen iritziak eta parte hartzeak ezinbestekoak direlako. Honetaz gain, gurasoek ikastolarekiko eginbehar batzuk ere bete behar dituzte; besteak beste, urtean aste bat jantokian eta beste aste bat garbiketa esparruan egotea hain zuzen.

Zentroko printzipioei begira, lau identitate ikur nagusi nabaritzen dira. Alde batetik, erakunde euskaldun eta euskaltzalea da. Eleanitza, demokratikoa, parte hartzailea eta kontsentsuzalea izateagatik ere bereizten da. Bestetik, zentro ireki, integratzaile eta anizduna da; ideia, balore, portaera sozial, politiko eta erlijioso guztiekiko adeitsua delako. Eta azkenik, giza-baloreetan jantzia: elkartasuna, errespetua, edukazioa, tolerantzia...

2.2. Datuen bilketarako erabili diren tresnak

Ikerketa hau burutzeko, zentroarekin harreman zuzena izatea ezinbestekoa izan da; bertatik jasotako informazioa lan honen garapena ahalbidetu duelako. Gauzak horrela, posiblea izan den heinean bertako profesionalekin eta gurasoekin ere biltzea garrantzitsua izan da.

Horretarako, lehen mailako iturri desberdinak erabili eta elkarren artean osagarriak diren teknikak aprobeixatu dira; horien aniztasuna islatuz. Aurrera eraman izan diren teknika kualitatiboen artean, zuzenekoak, profesional desberdinei egindako elkarrizketak; dokumentu ofizialen analisia eta gurasoei pasatutako inkestak izan dira. Baliabide guzti hauen aukeraketa ikerketa prozesuan zehar hartu izan den erabakia izan da. Hona hemen teknika horien zehaztapena eta aplikazioari buruzko datu batzuk:

- **Dokumentuen analisiak**

Ikastola mailan familiek zelako aukerak dauzkaten edo ez egiaztatzeko eta hauek nolakoak diren ezagutzeko, zentroko Hezkuntza Proiektuaren (2001) azterketa egin da. Honekin batera, ikerketa Haur Hezkuntzako etapara mugatu denez, bertako Marko Pedagogikoa (2008) ere analizatu egin da. Azterketa horiek egin baino lehen informazioa batzeko erregistro-fitxak prestatu dira, aztertu beharreko aspektuak zehazteko asmoz.

⁴ **1. Eranskina:** Ikastolako Organigrama Funtzionala.

Material hauek eskuragarri izateko eta hauen azterketa egiteko ikastolako Zuzendaritza Taldearengana jo izan da. Zentroko dokumentu ofizialak direla kontuan izanda, ezinezkoa izan da ikastolatik ateratzea; horregatik, ikerketa zentroan bertan egin da. Analisi honen oinarria dokumentuetako edukia izan da, horri lehentasuna emanaz.

- **Zuzendariari Pedagogikoari egindako elkarrizketa**

Momentura arte jasotako informazioa oso gainazalekoa izan da. Horregatik, informazioa osatzeko eta oinarria sendotzeko nahiarekin, ikastolako Zuzendari Pedagogikoari elkarrizketa egin zaio; gurasoek zehazki zelako jarduna duten eta hau zein esparruetan ematen den jakiteko. Pertsona hau aukeratu izan da besteak beste ikastolako orientatzailea delako; hortaz, ikasleak orientatzeaz eta laguntzeaz ez ezik, gurasoen aholkulari gisa ere jarduten du.

Elkarrizketa zuzen honetan erabilitako teknika kualitatiboa izanda, elkarrizketatuari hasiera-hasieratik elkarrizketaren helburua zein lortuko den informazioaren erabilera argitu zaio; baita elkarrizketan zehar berarengandik espero dena ere. Guzti hau zuzendariaren bulegoan burutu da, giro egoki horretan elkarrizketatua ahalik eta erosoan senti dadin.

- **Irakasle bati egindako elkarrizketa**

Ikastolan benetan ematen diren praktikak antzeman ostean, bertako profesional bati gaiaren inguruko elkarrizketa bat egin zaio; Haur Hezkuntzako 3 urteko irakasleari alegia. Honen helburua, gurasoekin harremana duela kontuan izanik, bere iritzia eta ikuspuntua ezagutzea izan da. Hau lehenengo momentutik azaldu izan zaio elkarrizketatuari, baita informazio hori non eta zertarako erabiliko den ere. Profesionalari elkarrizketaren lekua aukeran eman zaio, erosotasunari garrantzia emanaz.

- **Gurasoei pasatutako inkesta**

Ikerketa borobiltzeko eta gurasoen iritzi eta esperientziak hurbiletik entzuteko, gurasoei inkesta bat pasatu zaie. Inkesta metodo kuantitatiboen ohiko tresna den arren, Mesonero de Miguel-ek (2005) aitortzen duen bezala metodo kualitatiboentzako ere oso baliagarria da, erabilgarria den informazio gehigarria lortzea ahalbidetzen duelako.

Hortaz, azterketa hau 3 urteko gelara mugatu denez, jasotako esperientziak, jokaerak baita iritzi edota kezka ere, gela horretako 26 familiei egokitu zaizkie.

Teknika desberdinen bidez informazio guztia bildu ostean, hori zehatz-mehatz aztertu eta elkarren artean uztartu egin da; amaieran marko teorikoan jarritakoarekin konparatzeko. Horrela, hasieran finkatutako helburuak lortzeko, ondorioak oinarri izanik, lan honen azken eginkizuna den hobekuntza proposamena planteatu da.

3. Datuen analisia

Beharrezko informazioa eskuetan izanda, tekniken aplikazioaren analisia egin da; jomuga hasieran aipatu izan diren bi helburuak lortzea eta horiek ulertzea delako. Hori dela medio, hona hemen datuen analisitik ateratako emaitzak:

- **Dokumentuen analisiak/ 2. Eranskina**

Dokumentuen azterketa egin ostean, gurasoen praktiken inguruan oso informazio eskasa datorrela ikusi da; dena dela, ideia orokorra ateratzeko baliagarria izan daiteke.

Ikastolako Hezkuntza Proiektuaren (2001: 4) identitate ikurrak behatuta, honako hau aurki daiteke: “Ikastolak aukera demokratikoaren alde egingo du eta horretarako, guraso, irakasle, zerbitzuetako langile eta ikasleek haren kudeaketan parte hartu eta funtzionamenduan laguntzea sustatuko du”. Era horretan, zentroko maila guztietan bai gurasoen, irakasleen, ikasleen baita zerbitzuetako langileen lana ere islatuta ikusi behar da. Honen helburu nagusia parte hartzea arlo eta pertsona guztietara sustatzea baita.

Haur Hezkuntzako Marko Pedagogikoari (2008) dagokionez, gurasoen esku hartzearen inguruan ematen den informazioa ere oso gainazalekoa da. Zentroa demokratiko, parte hartzaile eta kontsentsuazale bezala definitzen da; kide guztien arteko lankidetzaren bermatuz. Hortaz, ikasleen heziketa partekatua izan behar dela azpimarratzen da, hurbileko eragile guztien arteko koherentziari eutsiz. Horrela, gurasoen eta irakasleen arteko komunikazioa, lotura sendoa, konfiantza, kooperazioa eta kolaborazioa bultzatzea funtsezkoa dela azpimarratzen da.

Nabaria den bezala, bi dokumentuetan agertzen den informazioa nahiko orokorra da, inplikazioa egon behar dela aitortzen da baina oso gainazaleko era batean. Azken batean, familia-eskola harremana eta lankidetzaren eman behar dela esaten da, baina ez da zehazten edota argitzen, erlazio hori nolakoa izan behar den, non eman behar den...

- **Zuzendariari Pedagogikoari egindako elkarrizketa/ 3. Eranskina**

Datu zehatzagoak bereganatzeko, Zuzendari Pedagogikoari elkarrizketa egin zaio. Era horretan, gurasoek benetan zelako ekintzetan eta esparruetan murgildu daitezkeen ikusi da.

Ikastola gurasoen kooperatiba bat izateak zuzendariaren hitzetan “Ikastola gurasoena dela esan nahi du; beraz, hasieratik gurasoen inplikazioa esparru guztietan egon behar da”. Zerbitzu kooperatiboan (jantokian eta garbiketan) egoteaz ez ezik, zentroko estamentu guztietan kide guztien lana sustatzen da. Hau da, Asanblada den organo gorenean, Errektore Batzordean eta maila baxuago batean Gestio Batzordean, kooperatibistek bestelako kideekin haien zereginak elkarbanatzen dituzte.

Mota honetako praktikez gain, etapa bakoitzean eskaintzen zaien Guraso Eskoletan ere jardun dezakete. Eskola hauetan lantzen dituzten gaiak haiek erabakitzen dituzte, horrela ikastola haien interesekoak direla ziurtatzen da. Honekin batera, zentroan egiten diren Tutoretzak ere puntu garrantzitsu bezala aipatu izan ditu zuzendariak; bilera orokorretan eta bilera indibidualetan ia guraso guztien presentzia nabaria delako.

Bestetik, gurasoez osatutako Jai Batzordea eta Euskara Batzordea ere aurki ditzakete; non hilean zehar biltzeaz gain, kooperatibista guztientzako ekintza bereziak sortzen dituzten. Gainera, honetaz aparte urtean zehar sortzen diren ekintza puntualak beste aukera apropos bat izan daitezke; baita momentuko beharren arabera, aurkezten zaizkien formakuntza saio espezifikoak ere.

Eskaintzen zaizkien aukerak izanda ere, “ikastolara gero eta guraso gutxiago datozela nabaritu dugu; batez ere Guraso Eskoletako parte hartzeari dagokionez”. Hau, ikasle nagusienetan gehien bat hautematen da, “ikasleak gero eta nagusiagoak izanda, haien gurasoen parte hartzea gero eta txikiagoa dela ere ikusi izan dugu; interes gutxiago dutelako”. “Haur eta Lehen Hezkuntzan ordea, parte hartze maila handiagoa dela

antzematen da; haiek eskatzen dute parte hartze hori, horren beharra ikusten dutelako” (Zuzendari Pedagogikoa).

Etorkizunari begira, kontuan izanda gurasoen praktikak hobeto ditzaketela, aldaketa prozesu batean daudela esan daiteke. Zuzendari Pedagogikoaren esanetan, “Momentuan horretan gaude, parte hartze hori handitzeko nahia daukagu, garrantzitsua ikusten dugulako. Gainera, gurasoen aldetik ere eskaera eta parte hartzeko grina dagoela ikusten dugu”. “Horretarako, beste eskola batzuetan aurrera eramaten dituzten programa eta ekintzetan oinarritzen ari gara, horiek eredu izateko”.

Hau horrela izanik, gurasoek zentroan eskaintza malgu bat topa dezakete, baina ez ordea haien seme-alaben hezkuntza prozesuari begira. Elkarrizketatuak aitortu duen bezala, “Gurasoei ia ez diegu ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan murgiltzeko aukerarik ematen momentuz. Horretan pentsatzen gaude, gurasoen beharra ezinbestekoa ikusten dugulako; ikasleen inguruan irakasleak ez ezik gurasoak ere daudelako”. Horregatik, gaur egungo zenbait ekintzetan guraso eta ikasleen arteko elkarlana bermatzen ahalegintzen ari dira.

- **Irakasle bati egindako elkarrizketa/ 4. Eranskina**

Tutoreari, gurasoek gelan zelako aukerak dituzten eta berak horren inguruan zer pentsatzen duen galdetu zaio. Gurasoek gehien bat bileren bitartez jarduten dutela adierazi du; bai talde bileretara baita bilera indibidualetara ere joanez. Hau gelarekiko duten lotura ohikoena da, hala ere, irakaslearen esanetan “Umeekin lan egitea eskatzen zaienean ere elkartrukaketak egoten dira, informazio trukeak alegia”.

Harreman hauek irakasle-gurasoen artean ematen diren erlazioak dira, eta irakaslearen iritziz nahikoak dira. Edonola ere, guraso-ikasle harremana sendoagoa izan beharko zela aipatzen du, hori ez lortzearen errua neurri handi batean haiena dela ere aitortuz: “Egia da umeekin parte hartze handiagoa izan beharko zutela; labur gelditzen delako. Hau agian gure aldetik informazio nahikoa ematen ez diegulako gertatzen da. Hots, gurasoei aldeztatik gaien inguruko informazioa bidalita, agian umeekin landu ahalko zituzten”.

Ondorioz, gurasoen presentzia handitzeko, bere jarrera aldatu behar duela argi dauka. Azken batean, inplikazio hori ezinbestekoa bilakatzen delako umeei kalitatezko hezkuntza zuzen bat eman ahal izateko. Berak aipatzen duen bezala, “Umeen motibazioa gurasoengandik etorri beharko litzateke. Bakoitzak jakin behar du bere seme-alabaren interesak zeintzuk diren eta zelako gustuak dituen; hortik irakurketa-idazketa prozesua abiatzeko, matematika esparrua...”.

- **Gurasoei pasatutako inkestak/ 5. Eranskina**

Ikerketaren eraginkortasuna eta ondorioen fidagarritasuna handitu nahian gurasoei galdetzea funtsezkoa izan da. Horretarako, pasatu diren 26 inkestetatik 21 erantzun jaso izan dira.

Gurasoek aitortu dutenaren arabera, erdiak ikastolan parte hartzen duen bitartean beste erdia ez da inolako eremuetan inplikitzen. Dena dela, parte hartzaile guztien artean ikastolak eskaintzen dituen aukera guztiak islatuta ikus daitezke. Hau da, gehiengoak ikastolako jaietan, ekintza puntualetan (Korrika, Agate Deuna...) eta zentroko zerbitzu kooperatiboan ibiltzeaz gain, gutxi batzuk Guraso Eskoletan, Asanbladetan, klaseko ordezkariak izaten eta batzorde desberdinetan ere inplikitzen dira.

Honetaz aparte, arraroa suertatzen den arren, guraso bakar batek soilik klaseko bileretan esku hartzen duela aipatu izan du; “Bakarrik joaten gara klaseko bileretara eta asanbladetara gutxitan [...]”. Hau kontraesankorra bilakatzen da, izan ere, gela honetako irakasleak azaldu duen bezala, “Gurasoek gehien bat bileren bitartez parte hartzen dute”.

Haien nahiei begira, ia ehuneko ehunak prest egongo lirateke haien seme-alaben hezkuntza prozesuan parte hartze zuzena izateko. Guraso batek argitzen duen bezala, “Oso garrantzitsua da familia eta eskola norabide berberan joatea eta helburu orokorrak amankomunean jartzea”. Hortaz, harreman hori handitzeko nahian, zentroari irakasle-guraso komunikazioa handiagoa izan beharko zela leporatzen diote. Horrela, umeen ikaskuntza-irakaskuntza prozesua ezagutuz, ikastolako edukiei jarraitasuna ere eman ahalko ziotelako.

Honekin jarraituz, haien interesak eta nahiak zelakoak diren jakiteko, haien seme-alaben hezkuntza prozesuan inplikatzeko nola gustatuko litzaiekeen galdetu zaie. Erantzun

guztiak bateratuz, honako hiru ideietara laburbiltzen dira: guraso-irakasle lan taldeak eginez, ikasleen hezkuntza prozesuari buruzko informazioa jasoz edota gurasoen arteko dinamikak edota ekintzak sortuz, esperientziak elkartrukatzeko eta egon daitezkeen arazoen aurrean elkarlaguntzeko.

Gehiengoak bat datoz haien praktika eskasa denaren ideiarekin, ondorioz, dauzkaten motibazioak aurrera eramatea ezinezkoa egiten zaie. Guraso baten iritziz, “Ez dugu ikastolako hezkuntza prozesuan parte hartzeko biderik ikusten. Gurasoen parte hartzea bilatzen denean beste motakoa izaten da: jaiak, txosna txandak...”. Hots beste batek argitzen duen bezala, “Ikastolaren funtzionamenduan ez gaude inplikaturik”. Modu horretan, hirugarrenak aitortzen duenez “Gurasoen parte hartze handiagoa behar da ikastolako egituran eta aukerak zabaldu behar zaizkigu. Hezkuntza eredu eta proiektua ezagutu behar dugu eta ekarpenetarako bideak eman [...]”.

Bestalde, nahiz eta erru gehiena ikastolako parte hartze eremuko antolaketa ezari leporatu, gutxi batzuk garrantzia duen bestelako arrazoi bat ematen ere ausartu dira. “Beti ez da posible eskatzen den laguntza ematea”, ordutegi bateraezinak direla eta, gure egoera pertsonala edota daukagun lanaren ondorioz... “Parte hartzea gustatuko litzaiguke baina ez dugu denborarik, bestela egingo genuke orain. Zaila da egin behar dugun guztia eta egiten duguna betetzea”.

Amaitzeko, oztopoak izan edo ez izan, inkestetan nabaria izan den bezala ehuneko ehunak ados dago haien inplikazioaren garrantziaz. Guraso batek azaltzen duen bezala, “Ezinbestekoa da; baloreak transmititzeko, afektibitatea emateko, arauak eta mugak ezartzeko, laguntzeko... Ez dugu hezkuntza prozesua irudikatzen ikastola eta familiaren arteko elkarlana barik”. Izan ere, umeen eredu direnez, garrantzitsua da haiek ikustea ikastolan parte hartzen dutela eta interesa dutela, bai haiek egiten dutenarekiko baita zetroarekiko ere. Beraz, umeen motibazioa indartzeko, “elkarlana da gakoa!”.

4. Ondorioak

Ikerketan zehar erabilitako teknika kualitatiboen aplikazioa eta datuen azterketa egin ostean, horren ebaluazioa egin da, honako ondorio hauek nabarmenduz.

Alde batetik, bai zentroa bere osotasunean baita bertako partaide guztiak ere gai honen garrantziaz kontziente direla esan daiteke. Izan ere, Sánchez (2002) eta Montañés-ek

(2007) aitortzen dutenarekin guztiz bat datoz; parte hartzea hezkuntza sistemarako kalitatezko faktore bat da. Era horretan, ikastolak eskaintza zabala egiten die gurasoei bertan murgiltzeko, eta askok bertan dihardute. Gurasoek argi daukate prozesu hau ez dagokiela haiei soilik, ezta irakasleei soilik ere, baizik eta guztion arteko elkarrekintza baten ondorioa dela. Afrikako esaera zahar batek argitzen duen bezala “Umearen hezkuntza herri osoari dagokio”⁵.

Hala ere, aukerak dituzten arren, askok hain seme-alaben ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan era zuzenago batean parte hartzeko falta nabaritzen dute; ikasle, irakasle eta guraso harremanak nahiko murrizak direlako. Honen errua, irakasle-gurasoen artean dagoen komunikazio faltari atxikitzen diote. Sánchez-en (2002) iritziz, ezinbestekoa da norabide guztietan mugituko den azpiegitura informatzaile egoki bat egotea, honek parte hartzean eragin zuzena izango duelako. Ideia honekin bai gelako irakasleak baita gurasoak ere ados daude, komunikazioa handiagoa egongo balitz, guraso-irakasle lotura sendoagoa izango litzatekeela pentsatzen dutelako.

Beraz, esan dena kontuan izanda, marko teorikoan zehaztu den INCLUD-ED Consortium proiektuaren (2011) esku hartze mailen arabera, Bilboko zentro hau erdiko puntu batean aurkitzen dela esan daiteke, maila erabakitzailean alegia. Gurasoak ikastolako ebaluazioan eta ikaskuntza ekintzetan inplikatu ezin diren arren, bestelako gauzetan jardun eta bertako hainbat erabaki adosteko aukera eta eskubidea daukate. Era horretan, proiektuaren esanen arabera, inklusio soziala, hezkuntzazkoa eta ikasleen eskola arrakasta era onuragarriago batean bermatu egiten da.

Laburbilduz, etorkizunari begira zuzendariak aipatu duen bezala “Ikastola berriarekin eta zabaldu nahi dugun hirugarren lerroarekin gurasoen parte hartzea handiagoa izatea lortu nahi dugu”. Horregatik gaur egun, zenbait ekintzei esker guraso-ikasle lana bermatzen ahalegintzen ari dira, zuzendariaren eta gurasoen esanetan, “Denok batera lan eginez askoz gauza gehiago lortu ditzakegulako”. Eta ez hori bakarrik, ikastolako dokumentuetan agertzen den bezala, xedea inplikazioa arlo eta pertsona guztietara sustatzea da, batez ere ikasleengan, ohitura hori ere pizteko. Gauzak horrela, ikasle, irakasle eta guraso harremana sendotzeko nahiarekin, ikerketa mugatuta dagoen 3 urteko gelarentzako hobekuntza proposamen bat aurkeztu da.

⁵ Proverbio Africano: “La educación del niño compete a todo el poblado”.

4.1. Hobekuntza proposamenak

Esan den bezala, Bilboko Ikastola honetan gurasoen jarduna nahiko egokia da, batez ere Haur eta Lehen Hezkuntzari dagokionez. Dena dela, Sánchez (2002) eta Egido-rekin (2014) bat etorritz, inklusiozko bide horretan aurrerapenak egin dituzten arren badute oraindik zer hobetu. Horregatik, ikerketaren azken atal honetan, egoera horri erantzun erabilgarri eta esanguratsu bat ematen saiatuko da.

Marko teorikoan jarri dena kontuan hartuz eta zentro honen ahuleziari erantzunez, ikasle, irakasle eta guraso harremana sendotzeko, aurretik azaldu izan den parte hartze tailerrak estrategia gisa proposatzea erabaki da. Estrategia hau, de la Guardia eta Santana-ren iritziz (2010), ikasle, guraso eta irakaslearen arteko kolaborazio espazio aberasgarriak eskaintzen ditu. Era horretan, partaide guztien arteko elkarlana eta inplikazio maila altua bermatzen da. Hori dela medio, eman daitezkeen tailer guztien artean, Ikastolari honako hauek adibidez proposatu zaizkio:

-Ipuin kontaketa: Tailer hau Sevillako eskola batean⁶ aurrera eraman izan da, guraso eta irakasleen elkarlaguntzari esker. Honen helburu nagusia umeengan irakurketa zaletasuna indartzea zen, horregatik Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urteko umeentzat ipuin kontaketa tailerra abian jartzea erabaki zuten. Hilean behin, guraso batek 20 minutuko irakurketa saio bat aurkezten zien ikasleei, gero ipuinaren inguruko solasaldi bat sortuz. Hau oso onuragarria suertatu izan zen partaide guztientzat.

-Sukaldaritza tailerra: Espazio hau beste aukera paregabe bat da sendotu nahi den harreman hori emateko. Molina-ren aipuz (2009), sukaldaritza tailerrak etapa honetako ikasleei elikadura eta osasunaren inguruko ohitura osasungarriak ezartzen laguntzen die; familiekin batera jardunez, izan ditzaketen ohitura txarrak alde batera uzten dituztelako. Gauzak horrela, umeek esparru honetan trebatzen joateaz gain, garatzen dituzten ohitura eta gaitasunak ere garrantzitsuak dira.

Hortaz, ikasleen hezkuntza prozesuan modu positiboan eragiteko, kide guztien talde lana sustatzea eta horrelako estrategiak kontuan izatea ezinbestekoa da (Eusko Jaurlaritza, 2012). Horregatik, eskolak gaur egun oraindik egitura irekiagoak eskaini behar ditu, non guztientzako harremanetarako espazio egokiak eskaintzen dituen (Ortega, 2009).

⁶ AMPA del CEIP Emilio Prados (2013).

5. Erreferentzia bibliografikoak

- AMPA del CEIP Emilio Prados (2013). Animación a la lectura “Los cuentacuentos”. Lan honetan: CEAPA, *Experiencias y buenas prácticas de participación de las familias en los centros escolares*. Madril: CEAPA. Berreskuratuta <https://www.ceapa.es/sites/default/files/uploads/ficheros/publicacion/Experiencias%20y%20buenas%20pr%C3%A1cticas.pdf-tik> 2015/05/09an.
- Arostegui, I., Darretxe, L. eta Beloki, N. (2013). La participación de las familias y de otros miembros de la comunidad como estrategia de éxito en las escuelas. *RIEE: Revista Iberoamericana de Evaluación Educativa*, 6 (2), 187-200.
- Batanero, J. M. F. (2005). ¿Educación inclusiva en nuestros centros educativos? Sí, pero ¿cómo?. *Contextos educativos: Revista de educación*, (8), 135-145.
- Booth, T. eta Ainscow, M. (2000). *Index for Inclusion*. Bristol: Center for Studies on Inclusive Education.
- Cabrera, D., Funes, J. eta Brullet, C. (2004). *Alumnado, familias y sistema educativo: los retos de la institución escolar*. Bartzelona: OCTAEDRO.
- Comellas, M. J. (2009). *Familia y escuela: compartir la educación*. Bartzelona: GRAÓ.
- De la Guardia, R. M. eta Santana, F. (2010). Alternativas de mejora de la participación educativa de las familias como instrumento para la calidad educativa. *REICE: Revista Electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 8 (3), 6-30.
- Egido, I. (2014). Capítulo 2. Marcos normativos de la participación de las familias en los sistemas educativos europeos. Una visión comparada. Lan honetan: Consejo Escolar del Estado, *La participación de las familias en la educación escolar* (35-56). Madril: Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. Secretaría General Técnica.
- Eusko Jaurlaritzza (2012). *Eskola Inklusiboaren esparruan Aniztasunari erantzuteko Plan Estrategikoa 2012-2016*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.

- Flecha, R. (2006). La participación de las familias en las comunidades de aprendizaje. Lan honetan: García, A. (Koord.), *Participación de las familias en la vida escolar: acciones y estrategias* (59-68). Madril: Ministerio de Educación y Ciencia, Instituto Superior de Formación del Profesorado. Secretaría General de Técnica.
- Flecha, R. eta Larena, R. (2008). *Comunidades de aprendizaje*. Sevilla: Fundación Ecoem.
- Flecha, R., Padrós, M. eta Puigdellívol, I. (2003). Comunidades de Aprendizaje: transformar la organización escolar al servicio de la comunidad. *Organización y gestión educativa*, (5), 1-12. Berreskuratuta <http://www.redes-cepalcala.org/inspector/DOCUMENTOS%20Y%20LIBROS/COMPENSATORI/COMUNIDADES%20-%20TRANSFORMAR%20LA%20EDUCACION.pdf-tik> 2014/11/19an.
- García, A. eta Sánchez, C. (2006). La participación de los padres en los documentos institucionales de los centros educativos. Lan honetan: García, A. (Koord.), *Participación de las familias en la vida escolar: acciones y estrategias* (149-180). Madril: Ministerio de Educación y Ciencia, Instituto Superior de Formación del Profesorado. Secretaría General de Técnica.
- Garrido, M., Burguera, J. L. eta Pérez, M. H. (2013). Exploración de la necesidad de participación de la familia en la escuela inclusiva. Lan honetan: Torío, S., García-Pérez, O., Peña, J. V. eta Fernández, C. M. (Koord.), *La crisis social y el estado del bienestar: las respuestas de la Pedagogía Social* (261-266). Oviedo: Universidad de Oviedo.
- Haur Hezkuntza 12/2009 DEKRETUA, urtarrilaren 30ekoa, Haur Hezkuntzako curriculumaz zehaztu, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ikaskuntza horiek ezartzen dituenak. Berreskuratuta <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2009/01/0900469a.pdf-tik> 2014/11/26an.
- Ikastola. (2001). *Hezkuntza Proiektua*.
- Ikastola. (2008). *Haur Hezkuntzako Marko Pedagogikoa*.

Ikastolako. Web orrialdeko egitura eta nor gara atalak. Berreskuratuta <http://www.urretxindorra.eus/EGITURA> eta <http://www.urretxindorra.eus/NOR-tik> 2015/03/30ean.

INCLUD-ED Consortium (2011). *Actuaciones de éxito en las escuelas europeas*. Madril: Ministerio de Educación, Instituto de Formación del Profesorado, Investigación e Innovación Educativa (IFIIE). Secretaría General de Técnica.

INICO (2009). *Mejor educación para todos: cuando se nos incluya también. Un informe mundial*. Salamanca: Instituto Universitario de Integración en la Comunidad (INICO), Universidad de Salamanca. Berreskuratuta http://inclusion-international.org/wp-content/uploads/2009/07/Mejor-Educacion-para-Todos_Un-Informe-Mundial_Octubre-2009.pdf-tik 2015/01/10ean.

Iturbe, X. (2012). La escuela inclusiva tiene nombre propio: comunidades de aprendizaje. Una experiencia de más de 10 años en el CEIP de Lekeitio. *Tendencias Pedagógicas*, (19), 43-66.

Jiménez, I. (2010). *La visión de la escuela inclusiva en la sociedad*. Jaén: Íttakus.

Junta de Participación de los Consejos Escolares Autonómicos (2014). *La participación de las familias en la educación escolar. Mirando al futuro*. Madril: Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. Secretaría General Técnica. Berreskuratuta <http://www.mecd.gob.es/dctm/cee/publicaciones/estudioparticipacion/webmirandofuturocee.pdf?documentId=0901e72b81b57bbd-tik> 2014/12/20an.

Kñallinsky, E. (1999). *La participación educativa: familia y escuela*. Zaragoza: Universidad de Las Palmas de Gran Canaria.

Mariñas, M. J. eta Rodríguez, E. (1999). Relación familia-centro escolar: participación. *Revista Galego-Portuguesa de Psicoloxía e Educación*, 4 (3), 55-67. Berreskuratuta <http://ruc.udc.es/handle/2183/6687-tik> 2014/11/30ean.

Mesonero de Miguel, M. (2005). *Ikerketa-proiektuak lantzeko teknikak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

- Molina, M. T. (2009). “¡A cocinar!”. *Revista digital innovación y experiencias educativas*, (23), 1-12. Berreskuratuta [http://www.csi-csif.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_23/M TERESA MOLINA_2.pdf-tik](http://www.csi-csif.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_23/M_TERESA_MOLINA_2.pdf-tik) 2015/05/09an.
- Montañés, F. (2007). La participación de las madres y padres en los centros escolares. Lan honetan: Garreta, J. (Ed.), *Relación familia-escuela* (61-74). Lleida: Universitat de Lleida.
- Ortega, V. (2009). *La educación es corresponsabilidad de todos/as*. Monográfico 199 sobre Escuelas de Padres y Madres. Educaweb. Berreskuratuta <http://www.educaweb.com/noticia/2009/11/02/educacion-es-corresponsabilidad-todos-as-3922/-tik> 2015/02/14an.
- Parrilla, A. (2003). La respuesta educativa a la diversidad. Lan honetan: Cano González, R., *Bases pedagógicas de la educación especial: Manual para la formación inicial del profesorado* (95-130). Madril: Editorial Biblioteca Nueva, S.L.
- Sánchez, J. M. (Koord.) (2002). *La participación como factor de mejora en la calidad educativa*. II Encuentro Institucional del Consejo Escolar de la Región de Murcia, Consejos Escolares Municipales y Consejos Escolares de Centro. Murcia: Consejo Escolar de la Región de Murcia.
- Sánchez, T. (2006). El centro educativo: un lugar de encuentro. Lan honetan: García, A. (Koord.), *Participación de las familias en la vida escolar: acciones y estrategias* (69-86). Madril: Ministerio de Educación y Ciencia, Instituto Superior de Formación del Profesorado. Secretaría General de Técnica.